

# EGAk C1 2024

## Antolamendu arauak

**Honako arategi hau urtean zehar moldatzen ahalko da,  
antolaketa beharrek hala eskatzen badute.**

### 1) Deialdiak

C1 mailako Euskara Gaitasuna egiaztatzeko azterketak antolatuko dira 2024an Iparraldean.

C1 maila egiaztatzeko probak, deialdi irekiz, bi azterketa-alditan izanen dira: 2024ko udaberrian eta udazkenean.

### 2) Nori irekiak: baldintzak

Azterketa hau, bere baitatik edo ikastetxe batean landuz euskara ongi dakien, C1 mailako (EGAk C1) gaitasun-agiria eskuratu nahi duen edozein<sup>1</sup> pertsonari zuzendua zaio, deialdi irekiz, 2024ko abenduaren 31n berantenez 17 urte betetzen dituen unetik; hots 2007ko urtarrilaren 1.a aitzin sortua. Salbuespen bakarra: 2008an sortu baina 2007koen ikasgelan diren azterketariak (ikasturte bat jauzi egin dutenak).

Azterketan parte hartu ahal izateko 35 €-ko saria ordaindu beharko da, deialdi bakoitzeko.

Azterketa egunean nortasun agiri bat aurkeztu beharko du azterketariak.

### 3) Azterketen leku-egunak

2024ko otsailean, EEPko webgunean eta hedabideen bitartez argitaratuko dira urteko egiaztapen dispositiboaren epe eta kokagunak.

#### 4) Aurkezteko aukerak

Azterketari bakoitza nahi bezainbat aldiz aurkezten ahalko da azterketa bakoitzera, baina deialdi berean ezingo du maila bat baino gehiagotara aurkeztu.

#### 5) Kopien kontsulta

Azterketa gainditu ez duen azterketari batek bere kopia kontsultatu nahi izanez gero, eskaera egin dezake. Batzorde Zientifikoak data bat finkatuko du horretarako, osasun krisiari aurre egiteko neurriek hori baimentzen badute.

#### 6) Baliogabetzea

Azterketa denboran tranpa egiten duen edo saiutzen den azterketaria, edo debekatuak diren lagungarriez baliatzen dena, azterketatik kanporatua izanen da eta haren azterketa baliogabetua.

Kanporatze eta baliogabetze erabakia, azterketa eguneko aztertzaile-taldearen esku izanen da.

#### 7) Azterketaren iragan molde zehatza

Azterketa idatziaren iragan moldea: **EGAk C1 Azterketa eredia 2024** dokumentuaren arabera egingen da.

Ahozko azterketaren iragan moldea: **EGAk C1 Azterketa eredia 2024** dokumentuaren arabera egingen da.

Epaimahaiaren osaera eta antolaketari dagokionez:

- Ahozko azterketara aurkezten den orok, bi aztertzailez osatu epaimahai baten aitzinean frogatu beharko du C1 mailari dagokion euskara gaitasuna duela: ahozko adierazpen jarraikia eta elkarreragineko gaitasunak eskuratu dituela.
- Epaimahaikideetako batek (edo aldizka, nahi izanez gero) azterketara aurkezturikoaren nortasun agiria egiaztatu eta azterketaren alde teknikoa segurtatuko du (izen-deiturak hartzea, minutuen neurketa...), besteak azterketaria galdekatuko duen bitartean.